



Psikoonkologiako IV. Jardunaldiak Entzungelan izan ziren

Euskal Herriko Psikoonkologiako IV. Jardunaldiak, minbizi aurreratua duten pertsonen eta ingurukoen sufrimendua eta ondoez psikikoa aztertzeko

Euskal Herriko Psikoonkologiako IV. Jardunaldiak izan ziren Deustun apirilaren 14an eta 15ean, minbizi aurreratua duten pertsonen eta ingurukoen sufrimenduari eta ondoez psikikoari buruz zenbait gai aztertzeko. Hizlarien artean, psikoonkologoek, sendagileek, erizainek, eta gizarte langileek hartu zuten parte, Euskal Herrikoek eta kanpokoek. Pertsona horiek egunero artatzen dituzte minbizia duten gaixoak eta euren senideak, eta hainbat ikuspuntu eman zituzten gaiaren inguruan.